

FARMAZIA – ARABAKO ESI-A

Lehen Mailako Arretako Farmazia

e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2026ko Ekaina

PRESTAZIO FARMAZEUTIKOAN EKARPENAK EGITEKO ARAUBIDEA ALDATZEA.
KOORDAINKETA BERRIAK

1

[Jarraitu irakurtzen](#)

AHOZKO BANKOMIZINAREN FORMULA MAGISTRALAREN EZOHICO GAIKUNTZA

2

[Jarraitu irakurtzen](#)

JORVEZA® HORNIDURA IRREGULARRA

3

[Jarraitu irakurtzen](#)

20-BALENTE TXERTO ANTIPNEUMOKOZIKO KONJUGATUA (VCN20) TXERTATZEKO
JARRAIBIDEAK ALDATZEA

4

[Jarraitu irakurtzen](#)

AEMPS INFORMAZIO-OHARRA: ALDAKETA VALIUM® INJEKTAGARRIAREN IZENEAN

5

[Jarraitu irakurtzen](#)

ARGITALPEN INTERESGARRIAK

- INFAC buletin berria: “Eragin Zuzeneko Ahotiko Antikoagulatzaileak (EZAA)”
- Sendagaiak zentzuz erabiltzeko oharra: “PBI: Preskripzio egokirako irizpideak”
- MAPAC txostena: gernu-tira, gernu-traktuaren infekzioa diagnostikatzeko
- Alzheimer gaixotasunerako farmako berriak: fisiopatologia eta ekintza-mekanismoa
- SIGN migrainaren gida
- Antsietatearen tratamendua lehen mailako arretan
- Gabapentinoide bidezko tratamenduaren, opioide edo benzodiazepinen erabilera konkomitantearen eta drogek eragindako intoxikazio-arriskuaren arteko lotura

6

[Jarraitu irakurtzen](#)

ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUEI BURUZKO HILABETEKO
BERRITASUNAK

7

[Jarraitu irakurtzen](#)

MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK

8

[Jarraitu irakurtzen](#)

ALDAKETAK LEHEN MAILAKO ARRETAKO ZENTROETAKO SENDAGAIEN
KATALOGOAN

9

[Jarraitu irakurtzen](#)

TXERTOAK ITZULTZEKO FORMULARIOA

10

[Jarraitu irakurtzen](#)

SUKAR TIFOIDEAREN AURKAKO TXERTO INJEKTAGARRIA

11

[Jarraitu irakurtzen](#)

FARMAZIA KOMUNITARIOAN BANAKETARAKO SISTEMA PERTSONALIZATUAK (SPD)
PRESTATZEKO PROGRAMA

12

[Jarraitu irakurtzen](#)

1

PRESTAZIO FARMAZEUTIKOAN EKARPENAK EGITEKO ARAUBIDEA ALDATZEA. KOORDAINKETA BERRIAK

2026ko maiatzaren 12an argitaratu zen *Estatuko Aldizkari Ofizialean* [maiatzaren 12ko 11/2026 Errege Lege Dekretua](#), **farmazia-prestazio anbulatorioan erabiltzaileek eta onuradunek egin beharreko ekarpenen araubidea aldatzen duena**, farmazia-ekarpenaren sisteman funtsezko aldaketak sartuta.

Une honetan ez dago aldaketa horien ezarpen teknologikorako egutegi zehatzik errezeta elektronikoko sistemetan, fakturazioan eta farmazia-banaketaekin lotutako gainerako tresna operatiboetan.

Sendagaien eta osasun-produktuen bermeei eta erabilera arrazionalari buruzko Legearen testu bateginaren 102. artikulua aldatzen duen arau berri honek honako berrikuntza hauek ekarri ditu:

- Pertsona aktiboentzako eta haien onuradunentzako ekarpen-mailak handitzea, hiru errenta-tartetik seira pasatuz.
- Urteko errenta 35.000 eurotik beherakoa duten kolektiboentzat, hileko gehieneko ekarpen-muga berriak sartzea.
- Gizarte Segurantzako pentsiodunentzat eta haien onuradunentzat tarteko muga bat ezartzen da, 18.000 eta 60.000 euro arteko errenta-tartean.
- Tratamendu luzea duten pazienteentzat eta errenta baxuenak dituztenentzat hileko gehienekoak sartzea.
- Errenta-maila txikiak dituzten Gizarte Segurantzako pentsiodunei aplikatu beharreko araubidea aldatzea.
- Haurrentzako laguntza-osagarriaren onuradunen salbuespena berariaz sartzea.

Kopago-taula muga berriekin:

Urteko errenta-tartea	Pertsona aktiboak eta onuradunak		Pentsiodunak eta onuradunak	
	% ordainketa	Hileko gehieneko muga	% ordainketa	Hileko gehieneko muga
9.000 € baino gutxiago	%40	8,23 €	%10	8,23 €
9.000-17.999 €	%40	18,52 €		13,37 €
18.000-34.999 €	%45	61,75 €		
35.000-59.999 €	%45	Mugarik gabe		
60.000-99.999 €	%50	Mugarik gabe	%60	18,52 €
100.000 € baino gehiago	%60	Mugarik gabe		61,75 €

[HASIERA-ra Itzuli](#)

2

AHOZKO BANKOMIZINAREN FORMULA MAGISTRALAREN EZOHICO GAIKUNTZA

Osasun Sailak jakinarazi duenez, Vangozr® (bankomizina) 125 mg 20 kapsula gogorren hornidurarik eza dela eta, salbuespenez, formula magistralaren preskripzioa gaitzen da: **Bankomizina 125 mg 40 kapsula (KN: 140544)**, hornidura berrezarri arte.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

3

JORVEZA® HORNIDURA IRREGULARRA

Gaur egun, Jorveza®-ren hornidura irregularra dago. Osasun Sailak jakinarazi duenez, hornidura irregular horrek irauten duen bitartean, botikan sendagaia lortzen ez duten baimendutako bisatua duten pertsonak harremanetan jarri beharko dute dagokion Lurralde-ordezkaritzako Farmazia-ikuskaritzarekin.

Kasu bakoitza banan-banan baloratuko da, Budesonida biskosa 0,2 mg/ml 250ml formula magistrala **salbuespenez baimentzeko**, eta, aurrerantzean, baita Budesonida biskosa 1 mg/ml 100ml ere.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

4

20-BALENTE TXERTO ANTIPNEUMOKOZIKO KONJUGATUA (VCN20) TXERTATZEKO JARRAIBIDEAK ALDATZEA

2026ko maiatzaren 26an, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak ohar bat igorri zuen "[VCN20ko xede-populazioa kaptazioa indartzeari](#)" buruz, eta bertan **VCN20ren txertaketa-jarraibideak aldatu ziren**.

Ohar honetan **VCN20 emateko gomendio berriak zehazten dira**, aurretiko txertaketa-historiaren arabera. Gainera, lehen mailako arretako zentroetan kaptazio aktiboko eta txertaketa oportunistako estrategiak areagotu behar direla gogorarazi da. Estrategia horiek honako talde hauei **zuzendu behar zaizkie lehentasunez**:

- Arrisku handiko baldintzak dituzten pazienteak, kaptazio aktibo sistematikoaren bidez.
- Arrisku-baldintza kronikoak dituzten 65 urteko edo gehiagoko helduak, osasun-sistemarekin duten edozein kontaktutan txertaketa oportunistak eskainiz.
- 65 urte edo gehiagoko biztanleria instituzionalizatua.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

5

AEMPS INFORMAZIO-OHARRA: ALDAKETA VALIUM® INJEKTAGARRIAREN IZENEAN

Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak (AEMPS) jakinarazi duenez, Valium® soluzio injektagarria duen kontzentrazioaren adierazpenaren aldaketari buruzko informazioa eman du, medikazioaren balizko akatsak saihesteko. Aldaketa horren ondorioz, Valium® 10 mg/2 ml soluzio injektagarria sendagaiari **Valium® 5 mg/ml soluzio injektagarria** izena hartzen zaio.

Aldaketa horrek sendagaiaren izenean kontzentrazioa adierazteko moduari bakarrik eragiten dio, eta ez du inolako aldaketarik ekarriko haren osieran, eta diazepam kopuru eta kontzentrazio bera mantentzen da. Stocka agortu arte, sendagaia aurreko izenarekin eta izendapen berriarekin batera egon ahal izango da kanal farmazeutikoan.

[Informazio-oharra](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

6

ARGITALPEN INTERESGARRIAK

INFAC: "Eragin Zuzeneko Ahotiko Antikoagulatzaileak (EZAA)"

[Web orrialdean](#) "Eragin Zuzeneko Ahotiko Antikoagulatzaileak (EZAA)" [INFAC buletin](#) berria eskuragarri dago. Buletin honen helburua da EZAAen indikazio nagusiak eta haien eraginkortasuna eta segurtasuna aztertzea. EZAAen maneiu klinikoaren alderdi praktikoak aztertuko dira ere bai.

Sendagaiak zentzuz erabiltzeko oharra: "PBI: Preskripzio egokirako irizpideak"

Sendagaiak zentzuz erabiltzeko ohar berri bat argitaratu da: "[PBI: Preskripzio egokirako irizpideak](#)". Fitxa honako [esteka](#) honetan kontsulta daiteke.

Webgunean eskuragarri daude [argitaratutako gainerako oharrak](#).

MAPAC txostena: gernu-tira, gernu-traktuaren infekzioa (GTI) diagnostikatzeko

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak "[MAPAC txostena: gernu-traktuaren infekzioa diagnostikatzeko gernu-tira](#)" argitaratu du. Txosten horren helburua da GTIren diagnostikoan gernu-tira errektiboaren errendimendu diagnostikoari buruzko ebidentzia aztertzea eta sintetizatzea, baita horien erabileraren inpaktu klinikoa ere.

Alzheimer gaixotasunerako farmako berriak: fisiopatologia eta ekintza-mekanismoa

The BMJ aldizkarian argitaratutako [artikuluak](#) Alzheimerren gaixotasunean egin berri diren aurrerapen terapeutikoen berrikuspena egiten du, eta tratamendu-estrategia berriei buruzko ikuspegiak eskaintzen ditu.

SIGN migrainaren gida

Scottish Intercollegiate Guidelines Network (SIGN) erakundeak 2018ko praktika klinikoko gidaren eguneraketa argitaratu du, [migrainaren tratamendu farmakologikoa](#) zentratua. Berrikuspen honek eskuragarri dagoen ebidentziaren sintesi zabaldua jasotzen du eta gomendioak eguneratzen ditu, helduen migraina akutua modu egokian kudeatzeko, baita migraina episodiko edo kronikoaren prebentziorako eta botiken gehiegizko erabileragatik sortutako buruko minaren tratamendurako ere.

Antsietatearen tratamendua lehen mailako arretan

JAMA aldizkariak "[Antsietatearen tratamendua lehen mailako arretan](#)" artikulua argitaratu du. Bertan, antsietatearen jokabide- eta farmakologia-tratamendurako aukerak zehazten dira, lehen mailako arretan egingarriak eta eraginkorrak direnak.

Gabapentinoide bidezko tratamenduaren, opioide edo benzodiazepinen erabilera konkomitantearen eta drogek eragindako intoxikazio-arriskuaren arteko lotura

PLOS Medicinen argitaratutako [artikulu](#) honen helburua gabapentinoide bidezko tratamenduaren eta drogek eragindako intoxikazio-arriskuaren arteko lotura ikertzea da (autokontrolatutako kasuen seriearen azterketa).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

7

HILABETEKO BERRITASUNAK ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUETAN

Hona hemen 2026ko ekainako berritasunak:

2026ko ekaina		
	Progesterona	Utrogestan® 400 mg kapsula baginalak (indikazio berria). Finantzatutako indikazio berria: - Berezko abortuaren prebentzioa haurdunaldiaren lehen hiruhilekoan odoljariora duten eta berezko abortu errepikatuen aurrekariak dituzten emakumeen kasuan. Fitxa teknikorako esteka
	Bankomizina	Vangozyl® 125 mg, kapsulak. 12 urtetik aurrera gomendatzen da <i>Clostridioides difficile</i> eragindako infekzioak tratatzeko. Fitxa teknikorako esteka

 Indikazioa, finantzaketa edo preskripziorako eta emateko baldintzak zabaltea

2020ko urtarilaz geroztik izandako berritasunak jasotzen dituen [dokumenturako](#) esteka.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

8

MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK

Hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIA garrantzitsuenak:

- Celestone® (betametasona) cronodose esekidura injehtagarria, 2 ml-ko bial 1
- Periactin® (ciproheptadina) 4 mg, 30 konprimitu
- Rovamycine® (espiramicina) 1,5 milioi UI, 24 konprimitu estalita

- Effentora® (fentaniloa) 100 mikrogramo, 28 ahoko konprimitu
- Gabapentina Teva® EFG 100 mg, 90 kapsula
- Zaditen® eta Ketobrill® (ketotifenoa) 0,25 mg/ml kolirioa monodosian
- Levotiroxina sodikoa Teva® 100 eta 125 mikrogramo, 84 konprimitu
- Plyzari® (liraglutida) 6 mg/ml disoluzio injektagarria aurrez kargatutako luma, 3 ml-ko 3 luma
- Manerix® (moclobemida) 300 mg, 30 konprimitu estalita
- Synarel® (nafarelina) 200 mikrogramo/pultsazio, sudurreko lainoztapenerako soluzioa 8 ml ontzi 1
- Dolantina® (petidina) 50 mg/ml, 2 ml-ko ampolla
- Dariante® EFG eta Neupro® (rotigotina) 3 mg/24 h, 28 adabaki transdermiko (6,75 mg)
- Taptiqom® (tafluprost/timolol) 15 mikrogramo/ml + 5 mg/ml kolirioa disoluzioan 30 monodosi 0,3 ml

Solsint® (lebotiroxina) dosi bakarreko ontziko ahozko soluzioa: aurkezpen guztiak merkaturatzeari utzi zaio.

HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- Atamax® (atomoxetina) 80 mg, 28 kapsula gogor
- Clexane® (enoxaparina) 12.000 UI (120 mg) 1 ml-ko aurrez kargatutako 10 xiringa injektagarri
- Epanutin® (fenitoina) 100 mg, 100 kapsula
- Actiq® (fentaniloa) 200 mikrogramo, 15 ahoko aplikagailu integratuarekin zupatzeko konprimituak
- Abstral® (fentaniloa) 400 µg, 10 mihipeko konprimitu
- Fiasp® (insulina asparta) pumpcart 100 U/ml, 1,6 ml-ko 5 kartutxo, 1,6 ml-ko soluzio injektagarria
- Levotiroxina sodikoa Teva® EFG 75 eta 125 mikrogramo, 84 konprimitu
- Urbason® (metilprednisolona) 16 mg, 30 konprimitu
- Lidaltrin® eta Quinapril Normon® (quinapril) 20 mg, 28 konprimitu estalita
- Carrelidon® eta Lacerol Cor® (diltiazem) 240 mg liberazio luzeko 30 konprimitu
- Nustendi® (azido bempedoiko/ezetimiba) 180 mg/10 mg, 28 konprimitu
- Noiafren® (clobazam) 20 mg, 20 konprimitu
- Furantoina® (nitrofurantoina) 50 mg, 21 eta 42 konprimitu
- Furantoina® (nitrofurantoina) 10 mg/ml ahozko esekidura, 80 ml-ko 1 ontzi 1
- Lyrica® (pregabalina) 225 mg, 56 kapsula

PRESBIDEn “Hornidura-gabezia” botoia eskuragarri dago, “Preskripzioen kontsulta” pantailaren beheko aldean, hornidura-gabeziei buruzko informazio erabilgarria erakusten duena.



Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:

- Presbiden: [Hornidura-gabezien taula](#)
- CIMA-AEMPSen: [AEMPSen medikamentuen hornidura arazoak](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

9

ALDAKETAK LEHEN MAILAKO ARRETAKO ZENTROETAKO SENDAGAIEN KATALOGOAN

Aldaketa hauek egin dira lehen mailako arretako zentroetan erabil daitezkeen medikamentuen katalogoan:

- **Paracetamol Normon** 500 mg kendu eta Paracetamol Kern Pharma 500 mg jarri da, erosketan zentralizatua egin delako. SAP kode berria 605747 da.
- Adrenalinaz aurrez kargatutako xiringak sartzen dira, pediatrian erabiltzen direnak BBB orgetarako (**Adrenalina Aguetant 10 xiringa** aurrez kargatuta, 10 ml-ko injektatzeko disoluzioa duena). Aurkezpen berriaren SAP kodea 710668 da.

- **Celestone Cronodose** (KN: 806745) hornidurarik gabeko egoeran dago, eta alternatiba terapeutikoaren eskaera izapidetu dugu. Izapideek denbora behar dutenez, alternatiba hori eskuragarri dugunean jakinaraziko dizuegu.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

10 TXERTOAK ITZULTZEKO FORMULARIOA:

Arabako osasun-zentroetako eta ESiko kontsultategietako hozkailuetan biltegitratutako txertoak hobeto kontrolatzeko, jakinarazten dizuegu txertoak itzultzeko formularioa eskuragarri dugula Arabako ESiko intranetean.

Inprimaki hori hemen aurki daiteke:

- Osasuna >Farmazia> Lehen Mailako arretako farmaziako dokumentuak
- Osasuna>Sustapena eta Prebentzioa>Zaintza epidemiologikoa eta txertaketak>Txertaketak>Arabako ESlaren Txertaketa

[HASIERA-ra Itzuli](#)

11 SUKAR TIFOIDEAREN AURKAKO TXERTO INJEKTAGARRIA

Arabako Nazioarteko Txertaketa Zentrotik jakinarazi dutenez, hemendik aurrera sukar tifoidearen aurkako txertoa hartu behar duten bidaiariei zuzenean jarriko zaie txertoa Nazioarteko Txertaketa Zentroan.

Doan emango zaien txerto injektagarria hau da:

TYPHIM VI 1 XIRINGA AURREKARGATUA DISOLUZIO INJEKTAGARRIA 0,5 ml

Hori dela eta, jada ez dira farmazia-bulegoetara bideratuko txerto hori erosteko.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

12 FARMAZIA KOMUNITARIOAN BANAKETARAKO SISTEMA PERTSONALIZATUAK (SPD) PRESTATZEKO PROGRAMA

Arabako ESIak, Arabako Farmazialarien Elkargo Ofizialarekin lankidetzan, hezkuntza indartzeko ekimen bat jarri du abian, medikazio kronikoa duten pertsonen tratamenduarekiko atxikidura hobetzeko, batez ere biztanleria polimedikatuari dagokionez.

Helburu horrekin, Dosifikazio Sistema Pertsonalizatuari (SPD) buruzko informazio-materiala (triptikoa eta posterra) prestatu da. Lurraldeko Erkidegoko farmazia askotan prestatzen eta ematen da, tratamenduen atxikidura eta segurtasuna hobetzen laguntzeko. Gainera, kasu jakin batzuetan, zerbitzua doakoa izan daiteke ezarritako baldintzak betetzen dituztenentzat.

Material horiek kontsultetan eta osasun-zentroetan inprimatu eta eman daitezke informazio-laguntza gisa, bereziki tratamendu kronikoan dauden eta agindutako farmako ugari dituzten pazienteei.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia

Farmazialariak: Arantza Hernández, Javier Martínez, Inés San José eta María Prieto.

Iradokizunak edo iruzkinak egiteko, bidali posta elektronikoa helbide honetara:

ARABAKO ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus



Argitalpen honen edukia Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da FarmaHitzak buletinak Osakidetzaaren intranetean daude eskuragarri hurrengo [estekaren](#) bidez

